

Utopiaren belaunaldia



PEPETELA
Utopiaren belaunaldia
Iñigo Roque Eguzkitza

Pepetela

Itzultzailea: Roque Eguzkitza, Iñigo

Bilduma: Literatura Unibertsala, 193

Formatua: 130 x 195 mm

Orrialdeak: 560

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2026-03-01

ISBN paperezko edizioa: 978-84-1093-010-0

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

22,00 €



Utopiaren belaunaldia Angolaren independentziaren atarian eta ondorengo urteetan hezitako belaunaldi baten ibilbide intimo eta kolektiboa da. Pepetelak Lisboako Ikasleen Etxetik ekialdeko fronteko gerrillara, eta handik gerra zibilaren nahasmenera eta utopiaren hondarretara daramatza bere pertsonaiak –Sara, Aníbal *Jakintsu*, Malongo eta Vítor *Mundial*–, eta haien bizitzak beren artean eta beste pertsonaia batzuekin gurutzatzen ditu, herrialde oso baten historia zatikatuaren ispilu gisa. Lau garai nagusitan egituratutako eleberriak idealismoaren sorrera, borrokaren gogortasuna eta askatasunak ekarritako kontraesanak erakusten ditu, itxaropenaren eta porrotaren arteko tentsio etengabea.

Gogoeta politikoa eta literatur kontakizuna maisuki uztartzen dituen eleberria da hau, epikarik gabe baina sakontasun handiz idatzia. Pepetelak ez du ez heroirik ez traidorerik marrazten, historiak higitutako pertsonak deskribatzen ditu, beren sinesmenekin eta zalantzekin. Ironiaz, saminez eta une askotan umore tragikoz, *Utopiaren belaunaldiak* Afrikako eta mundu osoko irakurleei galdera bera luzatzen die: Zer gertatzen da amets kolektiboek errealitatearekin talka egiten dutenean?

Pepetela

Artur Pestana dos Santos «Pepetela» (Benguela, Angola, 1941)

Angolar idazle eta soziologoa. Angolako historia garaikidea luze jorratu du Pepetelak, bere eta herrikidea bizipenetatik abiatuak. MPLAko kide izan zen borroka armatuaren garaian, eta zenbait ardura izan zituen independentzia ondoko gobernuetan, unibertsitatean eskolak ematen hasi zen arte. Gaur egun, gobernutik aldendurik, oraindik ere argi egiten digu Angolako egoeraz eta etorkizunaz, herri bizi horrenganako fedea galdu gabe. Haren lanik aipatuenak: *Ngungaren abenturak* (1972 [1996]), *Mayombe* (1979), *Yaka* (1985), *Utopiaren belaunaldia* (1992 [2025]), *Gloriosa Familia* (1997), *O Quase Fim do Mundo* (2008).